ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2021IPLE0001**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2021-02-09ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2021eko otsailaren 9an, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Aingeru Galarraga Barandiaran

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Mikel Galarza Arrue
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. KONTRATAZIO ZENTRALA: SU ITZALGAILUAK
4. KONTRATAZIO ZENTRALA: TELEFONO KOMUNIKAZIOAK
5. HILERRIKO PROIEKTUA
6. ARANZABEKO ERREPIDEA
7. ARKITEKTOAREN ALTA
8. EUDEL-EK PROPOSATURIKO SOLDATEN %0,9KO IGOERA
9. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO LANKIDETZA-HITZARMENA
10. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2020-11-24ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2020ko 101 eta 105 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. KONTRATAZIO ZENTRALA: SU ITZALGAILUAK

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, su itzalgailuen kontratazio espedientea berritzeko asmoa du eta Albizturko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Orain arte 21 su itzalgailu izan ditugu 4 eraikinetan, eta kopuru hau mantentzeko asmoa dago. Baina legediak su itzalgailuak 3 hilabetero errebisatzea eskatzen du orain (lehen urtero) eta zerbitzu hau ere kontratatuko da.

Era berean, suaren aurkako alarma sistemak ditugu haur eskolan eta ostatuan, eta zerbitzu horiek ere kontratatuko dira espediente berrian.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Su itzalgailuen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

4. KONTRATAZIO ZENTRALA: TELEFONO KOMUNIKAZIOAK

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, telefono komunikazioen kontratazio espedientea berritzeko asmoa du eta Albizturko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Orain arte integrala eta mugikorra izan ditugu kontratatuta gure eraikinetan, eta mantentzeko asmoa dago.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Telefono komunikazioen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

5. HILERRIKO PROIEKTUA

Obra egiteko baimena eman digu Eusko Jaularitzak eta obra burutuko duen enpresa aukeratu behar da kontratazio plataformaren bidez.

Momentu honetan nitxo bakarra dagoenez libre, lehendabizi hezurtegi komunean sartu behar diren gorpuzkiak edo erraustu eta familiak bereganatu behar dituenak aterako ditugu nitxoetatik (eraikiko diren kolunbario berrietan sartuko ez direnak), nitxo batzuk libratu eta denbora irabazteko asmoz.

Familiekin hitz egin dugu eta lortu ditugu beharrezkoak diren baimen guztiak. Datozen egunetan egingo dira lanak.

6. ARANZABEKO ERREPIDEA

2020ko irailaren hasieran Aranzabe eta Artutxa arteko errepidera eustorma zati bat erori zen. Ibilgailuak pasa zitezken errepidetik, baina ezin zen horrela utzi, kotxe asko ibiltzen direlako errepide hortatik eta dagoen egoeran uztea arriskutsua izan zitekelako.

Aranzabe baserrikoekin bilera egin ondoren, garbi adierazi ziguten eustorma horrek eta goiko bideak gaur egun ez dutela funtziorik betetzen, eta ez zuela zentzurik konpontzeak. Beraiek prest zeuden eustorman geratutako harriak garbitu eta lurra gastatzeko lur jauzirik gerta ez zedin, eta Albizturko Udala errepideko harriak kentzekotan geratu zen.

Burutu dira konpontze lanak eta Albizturko Udalak otsaileko ordainketekin ordainduko du berari dagokion obra zatiaren faktura.

7. ARKITEKTOAREN ALTA

Yoseba Maroto, udalari zerbitzua ematen dion arkitektoa, bajan egon da ebakuntza baten ondorioz, baina alta hartu zuen otsailak 1ean.

Bera falta izan den denboran, Xabier Rezabal-ek burutu ditu presa handiena zuten lanak, eta egokiena Xabier-ek hasitako lanak berak bukatzea izango dela adostu dugu.

8. EUDEL-EK PROPOSATURIKO SOLDATEN %0,9KO IGOERA

Joan den 2020/12/31n, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legea argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.

(…)Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean

zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.

Gaia aztertu ondoren, Albizturko Udaleko langileen soldata bere horretan mantentzea adostu da. 2020. urtea oso gogorra izan da gizartearentzat, baita ekonomikoki ere, baina langile publikoek beste sektore askok ez duten babes maila dute, eta Udaleko sarrerak ere asko gutxitu direnez, egokiago ikusten da igoerarik ez aplikatzea.

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Udal langile eta funtzionarioen ordainsariak bere horretan mantentzea.

9. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Albizturko Udalaren helburua, Albizturko herritarrek edozein administraziorekin egin beharreko izapideak elektronikoki eta Albizturko Udalaren bidez egiteko aukera izatea da.

Bide horretan, ezinbestekoa da “Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetza-hitzarmen”ekiko atxikimendua protokoloa onartzea.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- “Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetza-hitzarmen”ekiko protokolora atxikitzea.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari erabakiaren berri ematea.

10. GALDERA ERREGUAK

- Errepideak konpontzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza: Badirudi aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak aterako duela landa gunetako errepidea konpontzeko dirulaguntza. Garrantzitsua da egoera txarrean zein errepide dauden aztertu (Urkizu, Santa Marina, Marea Gaina, …) eta eskaerak prestatzen hastea.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Osoko bilkura, 21:00tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2021eko otsailaren 10ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 11:52:43 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:06:41 +02'00'